



Universidad Euskal Herriko  
del País Vasco Unibertsitatea  
ESCUELA UNIVERSITARIA DE MAGISTERIO DE BILBAO  
BILBOKO IRAKASLEEN UNIBERTSITATE ESKOLA

Gradu Amaierako Lana

HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA

2014/2015 ikasturtea

# Irteerak ikaskuntza baliabide bezala: Armañon Interpretazio Zentroa

**Egilea:** Haizea Ortiz Fernandez

**Zuzendaria(k):** Maite Morentin

Pilar Silva (Ortzadar S.L-ko koordinatzailea)

Leioan, 2015eko ekainaren 4an

## AURKIBIDEA

Sarrera .....	4
<b>1. Esparru teorikoa .....</b>	<b>5</b>
1.1. Testuingurua: aurrekariak eta egungo egoera .....	5
1.2. Zientzia-, teknologia- eta osasun kulturarako konpetentzia Hezkuntza sisteman.....	6
1.3. Zientzia-, teknologia- eta osasun kulturarako konpetentzia Haur Hezkuntzako Curriculumean .....	7
1.4. Zer dira irteerak? .....	8
1.5. Irteeren garrantzia eskola bizitzan .....	8
1.6. Lan honetan proposatzen diren helburuak .....	12
<b>2. Esparru praktikoa.....</b>	<b>12</b>
2.1. Metodologia.....	12
2.2. Egoeraren azterketa.....	13
2.2.1. Testuingurua .....	13
2.2.2. Espazioak.....	15
2.2.3. Programa didaktikoa .....	16
<b>3. Behaketa eta esku hartzea .....</b>	<b>17</b>
<b>4. Emaitzak .....</b>	<b>22</b>
<b>5. Ondorioak .....</b>	<b>24</b>
<b>6. Eskerrak .....</b>	<b>26</b>
<b>7. Erreferentzia bibliografikoak .....</b>	<b>27</b>
<b>ERANSKINAK .....</b>	<b>29</b>

## **Irteerak ikaskuntza baliabide bezala: Armañon Interpretazio Zentroa**

**Haizea Ortiz Fernandez**

**EHU/UPV**

### **Laburpena**

Haur Hezkuntzan zientziaren ikaskuntzarako baliabide aberasgarrietako bat irteerak dira, hauek beharrezkoak baitira haurren garapen integralerako. Horretarako, irteerak eskolaren parte izan behar dute eta irakasleek bisitaldiak proposatu behar dituzte. Hainbat toki daude bisitak egiteko HHko hurrekin eta lan honetan Armañongo Interpretazio Zentroaren hezkuntza eskaintza aztertuko da, adin txikiko umeen kasuan bertako baliabideen eragina ikusi ahal izateko. Zentroaren arduradunen iritziak ezagututa eta HHko haurren bisitaldia aztertuta, emaitzak eta ondorioak aterako dira.

*Irteerak, ingurua, ikaskuntza, Haur Hezkuntza, Interpretazio Zentroak*

### **Resumen**

Las salidas son uno de los recursos más enriquecedores para el aprendizaje de la ciencia en Educación Infantil y son necesarias para el proceso de aprendizaje integral del niño. Por eso, las salidas tienen que formar parte de la escuela y los profesores deben proponerlas. Hay muchos sitios para visitar con niños de Educación Infantil y en este trabajo se va a analizar la oferta educativa del centro de interpretación de Armañón para poder ver el efecto que tienen sus recursos en los niños. Una vez conocidas las opiniones de los trabajadores del centro y analizada la visita de Educación Infantil, se mostrarán los resultados y las conclusiones.

*Salidas, entorno, aprendizaje, Educación Infantil, centros de interpretación*

### **Abstract**

Departures are one of the most enriching resources for learning science in early childhood education and are necessary for the process of comprehensive learning of the Child. Therefore, the outputs have to be part of the school and teachers should propose them. There are many places to visit with children's and in this work is going to be analyzed the educational offer of Armañón interpretation center, to see the impact of its resources on children's. Once known the workers opinion and analyzed the visit of kindergarten, results and conclusions will be displayed.

*Outputs, environment, learning, childhood, interpretation centers*

## Sarrera

Gizakiok txikitatik gure ingurunearekin harremanetan jartzen gara, galderak egiten eta erantzunak bilatzen. Galdetze- eta erantzute-prozesu hauek jakintza eta zientziaren oinarrian daude.

Jaiotzen garenetik, gizakiok ingurunea ezagutzeko eta manipulatzeko joera daukagu, kuriositatea, imajinazioa eta sormena ezaugarri ditugularik. Era berean, gizakiok ingurukoekin komunikatzeko gaitasuna lantzen goaz bizitza osoan zehar. Kuriositatea, imajinazioa, sormena eta komunikazioa, bizitzaren edozein arlotan bezala, zientzia barne, ikasteko eta dagoena berritzeko ezinbesteko motorrak dira.

Hala ere, egun, zientziaren ikaskuntzari ez zaio behar besteko garrantzirik ematen hezkuntza sisteman eta bereziki Haur Hezkuntzan. Zientziaren gaitasunak erronka handia izaten jarraitzen du eskoletan.

Lan honen bidez, inguruaren ezaguerak haurrengan duen garrantzia azpimarratu nahi da. Haurrek behaketa eta esperimentazioaren bidez gure inguruak eskaintzen dizkigun aukerez jabetzen dira. Etapa hau funtsezkoa da haurrengan garapen integralerako eta bertan zientzia hezkuntza garatzeko eta inguruaren ezaguera lantzeko erabil daitekeen baliabide emankorragoetako bat irteera da.

Irteerak Haur Hezkuntzarako baliabide onuragarriak, baliagarriak eta interesgarriak dira, izan ere, inguratzen gaituenari buruzko gauza asko ikasteko aukera eskaintzen dute. Umeak lehenengo eskutik ikusten eta jasotzen du guztia behaketa eta esperimentazioaren bidez, eskolan errealitatearekin kontaktuan ez dagoen heinean ikasi ezin duena, alegia.

Haur Hezkuntzan ingurunearen ezaguerak duen garrantzia ardatz harturik, lan honen helburua irteerek inguruaren ezagueran duten garrantzia azpimarratzeaz gain, Parke Natural bateko interpretazio-zentroko hezkuntza eskaintza aztertzea izango da.

Behaketaren ondoren, lehendabizi aukeratutako irizpideak kontuan izanik, emaitza batzuk ateratzeari ekingo zaio, horrela gaur egun eskaintzen diren irteerei buruzko hausnarketa egin ahal izateko.

## 1.Esparru teorikoa

### 1.1.Testuingurua: aurrekariak eta egungo egoera

Zientziari dagokionez, PISA programan ageri dena kontuan izanik, formakuntza zientifikoa hezkuntzaren helburu nagusi bat da, hezkuntza sisteman burutu beharrekoa. (Arregi, Sainz, Tambo & Ugarriza, 2004).

Datuei erreparatzen badiegu, 2006 urtean PISAk hezkuntzan egindako ikerketetan oinarrituta, Espainiak 488 puntu lortu zituen, OCDEko batz bestekoaren (500) azpitik kokatuta. Euskal Herrian, aldiz, Espainiako emaitzak baino altuagoak izan ziren: 495 puntu (Instituto de Evaluación, 2007). Urte batzuk geroago egindako ikerketetan, 2009an eta 2012an hain zuzen, Espainiako emaitzak antzekoak izan ziren: 488 eta 496 puntu (Instituto de evaluación, 2010; Instituto de Evaluación , 2013).

Datuak alde batera utzita, zientziaren ikaskuntza zailtzat hartzen da. Besteak beste, honen irakaskuntza – ikaskuntza prozesuan erabiltzen den hiztegiaren konplexutasunagatik. Konplexutasun hau askotan haurren nahietatik aldentutako irakaskuntza ematen delako sortzen da, hau da, irakaskuntza akademizatua ematen delako eta ikasleen parte hartzea murrizta izaten delako (Cañas & Martín-Díaz, 2010). Ikasleek zientziaren irakasgaia zaila ikusteaz gain, aspergarria eta interesik gabekoa bezala ikusten dute (Solbes & Traver, 2001; Solbes, Monserrat & Furió, 2007).

Beraz, ikuspuntu hori aldatzeko nahian eta formakuntza zientifikoak duen garrantzia jakinda, Haur Hezkuntzako etapan landu beharreko arloa dugu. Horretarako, beharrezkoa da haurren interesetatik abiatzea irakaskuntza programa zehaztu baino lehen. M<sup>a</sup> Pilar Jimenez eta Blanca Puig (2013) bat datoz aurreko ideiarekin eta horregatik haien ustetan zientziak eta zientzien inguruko praktika guztiak curriculumaren parte izan beharko dira.

Horrekin lotuta, Haur Hezkuntzako Curriculumak hauxe esaten du:

Haurrak ingurunearekin eta parekoekin harremanetan aritzeak aukera ematen du haiek ingurune hurbilean integra daitezen eta pentsamendu-prozesuak gara ditzaten; eta gai egingo ditu erabakiak hartzeko, arazoak konpontzeko, errealitatea eta bizileku duten mundua ezagutzeko eta baliabide kognitiboak gero eta modu landuagoan eta konplexuagoan erabiltzeko. Horrela, ikasten ikasteko gaitasuna, zientzia-, teknologia-

eta osasun-kulturarako gaitasuna eta matematikarako gaitasuna garatuz joango dira (12/2009 Dekretua: 12).

Guzti hau kontuan izanda, ezin uka genezake Haur Hezkuntza zientzia irakasteko esparru aproposa dela, etapa honek eta parte hartzen duten haurren ezaugarriek eskaintzen dituzten baliabideak egokiak direlako. Hortaz, horiek aprobetxatuz aipatutako zailtasunak atzean utz daitezke eta bide batez, zientziaren ikaskuntzari bultzada eman.

Ingurunea pertsonen inguruan ageri diren hainbat elementu, gertakari eta faktoreren multzoa da, eta, han, aldi berean, gizakion bizitzak eta jarduerak esanahia lortzen dute. Haurrek ondoen ezagut dezaketen hori da ingurunea, haien sentimenez esperientziaren emaitza delako, ezaguna zaielako eta denboran edo espazioan gertukoa dutelako.

## **1.2. Zientzia-, teknologia- eta osasun kulturarako kompetentzia Hezkuntza sisteman**

DELORS txostenean (1996) adostutako erabakiei jarraituz 2000. urtean Lisboan Europako kontseilua biltzen da eta Oinarrizko gaitasunen testuinguru europar komuna lantzeko prozesua hasten da. Bideari ekinez 2005. urtean Europako Batasunean definitzen dira zeintzuk izango diren hezkuntzarako oinarrizko gaitasunak eta 2006. urtean Europako Legebiltzarrak estatu kideentzako gomendio bat onartzen du, haien curriculumetan gaitasun giltzarriak (Komunikazioa ama hizkuntzan - Atzerriko hizkuntzetan komunikatzea - Matematikarako gaitasuna eta zientzia eta teknologiako oinarrizko gaitasunak izatea - Gaitasun digitala - Gizarte eta gizalegeko gaitasunak - Kontzientzia eta adierazpen kulturalak - Ikasten ikasi - Ekintzailea izatea eta enpresa-espiritua edukitzea) sar ditzaten (DOUE, 2006ko abenduaren 30a).

2007. EAeko Urriaren 16ko 175/2007 Dekretuak (Oinarrizko Hezkuntzaren curriculumak ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoan) oinarrizko gaitasunaren definizio bera mantentzen du eta irizpide berak kontzepzio eta zentzuari dagokionez, baina terminologia eta edukietan zenbait aldaketa sartzen ditu. Gaitasun hauen artean 175/2007 dekretuak Zientzia-, teknologia- eta osasun-kulturarako gaitasuna honelaxe definitzen du:

Ingurune fisikoarekiko elkarreraginei erreparatzen die gaitasun honek, hau da, ingurune fisikoaren alderdi naturalei eta gizakien ekintzaren ondorioz sortutakoei. Hala, gaitasun honek aukera ematen du gertakariak ulertzeko, gertakarien ondorioen aurreikuspenak egiteko, eta norberaren eta gainerako pertsonen eta izaki bizidunen baldintzak hobetzeko eta kontserbatzeko jarduerak egiteko (EHAA218. alearen Gehigarria 2007ko azaroak 13, asteartea, 12. orri).

### **1.3. Zientzia-, teknologia- eta osasun kulturarako kompetentzia Haur Hezkuntzako Curriculumean**

Zientzia-, teknologia- eta osasun kulturarako kompetentzia oinarrizko kompetentzia bat izanik hezkuntza komunitateak ikasleei oinarrizko baliabideak eskaini behar dizkio kompetentzia hau lortzeko bidean. Egun, Zientzia-, teknologia- eta osasun kulturarako kompetentzia pisu metodologiko handia duen zeharkako kompetentzia bat da, oinarrizko kompetentzien sostengu gisa balio duena. Hori horrela izanik, Haur Hezkuntzako etapan aipamen eta leku berezia du.

12/2009ko Haur Hezkuntzako Curriculumeko oinarrizko gaitasun giltzarrietako bat izanik eta gaitasun honi 175/2009 Dekretuen egiten zaion definizioa ardatz izanik. Haur Hezkuntzako Curriculumean gaitasun hau inguruaren ezaguera esparruarekin estuki lotuta agertzen zaigu. EAEko Haur Hezkuntzako Curriculumean (EHAA, 12/2009 dekretua eta 121/2010 dekretua) inguruaren ezaguera adierazpidea curriculumeko bigarren esperientzia eremuari egiten baitio erreferentzia. (EHAA, 12/2009 dekretua, ZK 21: 20.)

Esperientzia – eremu hau ingurune naturala, fisikoa eta soziala osatzen duten testuinguruen gaineko ezaguera gero eta doituagoa eraikitzeari dagokio. (EHAA, 12/2009 dekretua, ZK 21: 20).

Inguruaren ezaguera eremuak, Haur Hezkuntzan haurrek ingurune fisiko, naturala eta soziala modu aktiboan azter, esplora eta ezagutzea xede izango du. Xede hauek eskuratzeko haurrak ingurune horietako kide diren sentipena garatzeko eta haietara nolabaiteko segurtasunaz eta autonomiaz moldatzeko aukera ematen duten irakaskuntza - ikaskuntza esku hartzeak proposatu beharra dago.

Esku - hartze hauetan haurrek ingurunea ikertu eta bertako zenbait elementuen ezaugarriak identifikatzea helburu izanik haurrek haietan jarduteko eta eraldaketak sortzeko gaitasuna garatuko dute.

#### **1.4. Zer dira irteerak?**

Eskola-esparruan irteerei buruz mintzatzen garenean, ingurua, ingurugiroa, ikerkuntza eta behaketa bezalako hitzekin erlazionatzen dugu. Baina, zer da irteera bat?, Estorch, Gómez, González, Quesada eta Quijanoren (1993) ustez, irteera esperientzia hezitzaile bezala ulertu behar dugu, taldean egiten dena eta desplazamendu bat duena, bai eskola barruan bai kanpoan.

Irteera bat, beraz, eskola bizitzaren parte izan behar du eta horrekin batera eskola-esparruan egiten diren hainbat jardueren motibazioa izan. Irteerak lan plangintza bat dira, aurretik zehaztutako helburuak dituztenak gero aurrera emanago direnak. Ekintza hauek gela bakoitzeko taldearen ezaugarriei egokituta egon behar dute, motibagarriak izan behar dute eta aurretiko plangintza baten menpe egon behar dute.

Eskolan egiten diren irteerek balio hezitzailea, soziala eta didaktikoa dutela esan dezakegu. Irteera horiek eskolako ekintzak dira, zeinak etapa bakoitzean zehaztutako helburuekin erlazionatuta egon behar direnak eta horren inguruan gauzatu behar direnak. Horrela, ekintza hauen bitartez, helburu didaktikoak, pedagogikoak eta sozialak indartu daitezke eta era berean gela barruko jardueren bidez programatu eta indartuak izan daitezke.

Irteerak bi multzo handitan banatu ditzakegu:

- Leku zabalak (hondartza, basoa, parke naturala...)
- Leku itxiak edo ekipamenduak (museoak, baserri-eskolak, interpretazio-zentroak...)

Jarraian irteera hauek Haur Hezkuntzako umeentzat duten garrantzia azalduko da, baliabide hau egoki antolatzeko pausuak azaltzeaz batera.

#### **1.5. Irteeren garrantzia eskola bizitzan**

Irteerak eta ibilbide didaktikoak Haur Hezkuntzako umeentzat esparru soziokulturaleko kontzeptuen eta edukien garapenerako ekintza interesgarrienak dira. Ikasleek eskolan eta gelan landutako edukiak hobeto barneratzen dituzte ingurunearekin esperientzia zuzena izaten badute. Hori irteeren bidez gertatzen da.



Horrela, esan dezakegu ingurunea Haur Hezkuntzako gelan hainbat aspektu lantzerakoan kontuan izan behar dugun baliabide hezitzailea dela.

Horrez gain, irteeren bidez haurrak sozializazioarako prozesua eraikitzen doa, bere ingurune hurbileko elementu sozialekin kontaktuan dagoelako “beste esperientziei irekitzen, monotoniarekin apurtzen eta hezkuntza-prozesua modu ludikoan ikusten, eduki berrien ikasketa hobetzen duelarik”. (Cuenca, 2001, 122 orr.).

Pilar Benejam (2003) ere ideia horrekin bat dator:

Las salidas tienen como objetivo facilitar la convivencia, el conocimiento entre los alumnos y con los profesores, la construcción de la idea de grupo y propiciar actitudes de participación y colaboración.

Haur Hezkuntzak beharrezko ekintza eta instrumentuak eskaini behar dizkio haurrari, berak bere gaitasunak guztiz garatzeko. Perspektiba honetatik planteatu behar dira helburuak eta horien inguruan ekintza bakoitza planifikatu, haurraren garapen integrala lortzeko.

Irteerek deskubritze-ikaskuntza eskaintzen dute, haurrak hazkuntzaren bidez ikasten dute, errealitatearekin kontaktuan egoten eta haien akzio propioetatik ikasten dute. Horregatik, eskolak egoera familiarrak eta zehatzak eskaini behar ditu, zeinetan umeak aurretik dakizkien gaitasunak berriekin lotuko dituen.

Horrela, irteera batean umeak behatu, ukitu, mugitu, lekuz aldatu, galdetu, deskubritu, pentsatu, erlazioak egin, adierazi, iritzia eman, ... egiten du. Umearen curiositatea bultzatuz errealitatean aritzeko gai diren gizakiak sortuko dira, zeinak irekiak, kritikoak, autoikaskuntzarako kapazak direnak, autonomoak... izango diren. Beraz, irteeren bidezko ikaskuntza hezkuntzarekin erlazio naturala ezarriko du. (Estorch eta besteak, 1993).

Haurra txikia denetik garrantzitsua da esperimendazioa eta inguruaren ulermena estimulatzea, modu horretan edukiak barneratzea lortu ahal delako eta potentziatzen delako. Inguruaren (naturala, fisikoa eta soziala) ezagutza zuzenak haurrari errealitatearekin kontaktuan dagoen bitartean bertako zenbait aspektu ulertzen laguntzen dio. Gainera, jarrera positiboak sortzen dira ere (interesa, curiositatea, errespetua...).

Horrekin batera, García Carrancoren (2008) ustez, eskola irteerak desberdintasun sozialei aurre egiteko balio dute, haur guztiei haien mundua zabaltzeko eta gauza berriak ikusi eta ikasteko aukera eskaintzen dutelako. Bestetik, familien parte-hartzea bultzatzen dute eta ondorioz eskola, ikasle eta gurasoen artean harremana sustatzen eta indartzen da.

Eskolaz kanpoko irteerak irakaskuntza-ikaskuntza prozesuko elementurik garrantzitsuenetarikoa da; izan ere umeengan motibazio handia sortzen du, aurretik ikasitakoa errealitatearekin harremanatzen du, ekintza ezberdinak egiten ditu, bai taldean bai indibidualki... Haur Hezkuntzan proposatzen diren printzipio metodologiko guztietara helduz.

Irakasleari dagokionez, umearen eskura jarri behar ditu haurra bizi den gizarteko errekurtsu guztiak. Irteerak, bisitak... egin ahal izateko interesgarria da haurrak inguruak eskaintzen dizkion esperientzia ezberdinak ezagutzea. Horretarako, beharrezkoa da irteerak eskolako programazioan integratuta egotea, hau da, ikasketa esanguratsua lortzeko programazio horretan irteerei buruzko aspektuak landu behar dira. Interesgarria eta garrantzitsua da gelara heltzean ikusi eta ikasitakoa lantzea, adibidez hizketaldia sortuz, marrazkia eginez... horrela irteera eskolako jardueretan integratuta geratzeko.

Cuenca (2011)-ren iritziz, Haur Hezkuntzan irteerak lantzerakoan edukirik garrantzitsuena ibilbide mota ezberdinetan oinarrituz, ibilbide naturalak dira, landaredia, animaliak eta geologia ezberdintzeko eta klasifikatzeko. Hala ere, egun badaude irteerak antolatu eta hezkuntza programak eskaintzen dituzten zentroak. Horrela, ibilbideak egin ahal izateaz gain, hainbat zentroetan inguruarekin harremanatzeko programa didaktikoak eramaten dira aurrera, eta horiei esker, hurrek inguruarekin kontaktu zuzenagoa dute eta modu erakargarriago batean ikasten dute.

Laburbilduz: Eskola irteerak ikaskuntzarako errekurtsua dira. (García Carranco, 1989, 80.orr.).

Ezagutzen eraikuntzaren teoriari jarraituz, haurrak ikasi egiten du kontzeptu berriak aurretik zituen kontzeptuen eskeman integratzen. Horrekin esan dezakegu irteerek ezagutzen integrazioan laguntzen dutela, bai eta aurretik zituen ezagutzen eskemak moldatzen.

Konstruktibismoaren ikuspuntuak gizakien pentsaera ikaskuntza propiotik nola eraiki ahal dugun esaten digu. Haurrak, manipulazioaren bidez eta ingurunearekiko kontaktuaren bidez bere intelgentzia garatzen du. Manipulazioari esker, haurra errealitatea deskubritzen doa.

Bere inguruan irteera bat egiteak haurrak inguruarekin kontaktua izatea ahalbidetzen du. Haurrak modu zuzenean errealitatea ezagutzen joango da, pentsamendua garatzen duen bitartean, inguratzen duen mundutik informazio asko jasoz.

Aurretik aipatutakoez gain, irteerek helburu hezitzailea izan behar dute, ludikoarekin batera. Horregatik, García Carrancoren ideiarekin bat egiten dugu (2008, 80.orr.):

- Programazioaren parte izatea.
- Planifikazioa eta motibazioa beharrezkoak dituzte.
- Ikaskuntza testuinguruak eskaintzea, non jarrerak, balioak eta arauak ikasiko diren.
- Aurretik eskolan landutako edukiekin bat etortzea, zentzua emanaz eta osatzen.

Irteera bat antolatzerako orduan, badira zenbait aspektu landu beharrekoak. Irteeraren ardura eskolarena da baina lana bideratu beharko duena irakaslea da. Irakasleari dagokionez, planifikazio hori prestatzeak lan handia suposatzen du: alde batetik, aurretiko prestakuntza egin beharra du (aukeratu, informatu, kontaktuan jarri, eskolarekin adostu, umeak ekintzan kokatu...); bestetik, irteera bera (bertara joan, umeen ardura...) eta azkenik irteera ostean egin beharrezko jarduerak prestatu behar ditu.

## **1.6. Lan honetan proposatzen diren helburuak**

Haur Hezkuntzan ingurunearen ezaguerak duen garrantzia ardatz harturik, lan honetan Parke naturalek inguruaren ezaguera barneratzeko duten garrantzia azpimarratu nahi izan da, eta are gehiago, parkeetan dauden interpretazio-zentroek eskaintzen duten hezkuntza programaren garrantzia.

Lan honetan proposatzen diren helburuak hurrengoak dira:

- Armañongo Parke Naturaleko Interpretazio Zentroaren programak ezagutzea
- Interpretazio Zentroko programa batean parte hartzea (HHkoa)
- Behaketa egin ostean emaitzak aztertzea eta ondorioak ateratzea

Beraz, Gradu Amaierako Lan honen gaia aukeratzeko arrazoia zientzia esperimentalei ematen zaien garrantzi eskasia da, Haur Hezkuntzan batez ere. Hori kontuan izanda, eta aurreko orrialdeetan ikusi den bezala, zientzia esperimentalak oso onurazkoak direla haurren ikaskuntza-prozesurako, esparru horrekin zerikusia duten eskola-irteeren azterketa egitea erabaki nuen, izan ere, eskola irteeren bidez haurrek zientzia modu erakargarri eta zuzenagoan ikasteko aukera daukatelakoan bainago.

## **2.Esparru praktikoa**

### **2.1. Metodologia**

Lan hau egiteko, lehenengo pausoa irteerei buruzko autore desberdinen euskarriak eta proposamenak irakurtzea, aztertzea eta ideiak ateratzea izan da. Hainbat proposamen ezagutu ostean, Haur Hezkuntzarako dauden proposamenak eskasak direla esan dezaket. Leku askotan bisitaldi gidatuak egiten dituzte, baina orokorrean ez daude Haur Hezkuntzarako hezkuntza programa berezirik dituzten espazioak.

Idea horren aurrean, Haur Hezkuntzarako programak dituzten zentroak zehazki aztertu eta batez ere Bizkaiko Parke Naturaletako Interpretazio zentroen eskaintzak interesgarriak direla konturatuta, horietako bat aztertzeke erabaki izan zen lanerako ardatza.

Aukeren artean Armañongo Interpretazio zentroa aztertzea adostu genuen, izan ere, oraindik asko ezagutu eta zabaldu ez den programa dute. Gauzak horrela, bertako arduradunekin kontaktuan jarri ondoren, lanaren planifikazioa adostu zen.

- Zentroa ezagutzea, arduradunekin hitz egitea, eskola programak aztertzea, ekintzen azalpenak entzutea, ...
- Haur hezkuntzako taldeak bertan dauden egunak ezagutzea, jarduera desberdinak egiten dituzten bitartean haurren portaera behatzeko. Egunak ezagututa, behaketa egiteko saioak adostea.
- Haur hezkuntzako haurren behaketarako irizpideak zehaztea: jardueren egokitasuna, espazioaren erabilera, haurren portaera, begiraleen jarrera eta komunikazio motak, bereziki.
- Behaketa zuzena egitea (adostutako egunean), hau da, esku hartzea.
- Ondorioak ateratzea eta zentroari proposamenak helaraztea.

## **2.2. Egoeraren azterketa**

### **2.2.1. Testuingurua**

Lan hau 2015. urteko martxoko hilabetean zehar eraman da aurrera Armañon Parke Naturaleko Interpretazio Zentroan.

Armañon Parke Naturala Karrantza Haraneko Ranero auzoan dago kokatuta. Armañon 2006. urtean deklaratu zuten parke naturala, Euskal Autonomia Erkidegoko bederatzigarrena bihurtuz eta Bizkaiko Foru Aldundiaren babesa izanik.

Armañongo Parke Naturalean Armañon Interpretazio Zentroa (2012.urtean zabaldu zuten) eta Pozalaguako Kobazuloak ditugu.

Interpretazio zentroari dagokionez, 2 gune fisiko biltzen dituen lehenengo zentroa da: Armañongo Parke Naturala eta Ordunteko Mendietako Kontserbazio Bereziko Gunea.

Armañongo Parke Naturaleko eta Ordunteko Mendietako Kontserbazio Bereziko Gunea (KBG) antzina "Dolomitas del Norte" zeritzon meategiaren egituraren gainean eraiki da eta ezaugarri nagusi bat du: bisitariak lurpean, 40 metro beherantz,

garraiatzen dituen igogailua. Eraikin zaharra berreskuratzeko orduan, jasangarritasun-irizpideak erabili nahi izan ziren. Erabaki horri esker, eraikina naturaren barruan integratzea lortu da eta eragin mota guztiak murriztea, azpiegitura berri bat eraikitzearen orde.

Parketxeari garrantzizko helburu bikoitz bat betetzeko eginkizuna ezarri zaio: eskualdeko kontserbazioa eta garapena. Kontserbazioari dagokionez, jendeari natur ingurunearen babesean eta zaintzan duen erantzukizunaren zatiaz informazioa eskaini eta haren inguruan sensibilizatzeko plataforma bat da.

Armañon Parke Naturalaren Interpretazio zentroa Parke Naturalaren alde batean kokatzen da. Inguru zabal honetan, mendi eta bailaraz gain, hiru espazio handi bereiz ditzakegu, eraikin egiturakoak: interpretazio zentroa, Taberna eta Pozalaguako kobazuloak.

Armañongo Parketxea gun e zabala da, hiru solairutan banatua, eta goialdean behatoki ikusgarri bat ere badu, bailararen ikuspegi zoragarria eskaintzen duena. Bertan informazio-panelek, ukipen-pantailek, joko interaktiboek, bideo argigarriek, laginek, maketek eta eremuaren gaineko hegaldi birtualak osatzen dute erakusketa.

Parketxera sartzera doan da eta bisitaldia egin nahi duen edonor joan daiteke Asteartetik Igandera goizeko 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara. Bertan dauden 5 langileek nahi izanez gero bisita gidatuak egiten dituzte euskaraz zein erdararaz. Bisita gidatu horretan inguruko fauna eta flora ezagutzeko aukera dago, Armañongo geologia eta historiaz gain.

Horrez gain, Ordunte Mendietako eta Armañon Parke Naturalaren Interpretazio Zentroak eskola bisitak ere hartzen ditu, alde z aurretik erreserbatutakoak. Horietarako, zenbait programa garatzen ditu Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoetako eta Prestakuntza Modulu etako ikasleentzat.

Programa didaktiko guztietan ibilbide bat egingo da Armañon Parke Naturala eta inguruak ezagutzeko eta gainera, Parketxea bisitatuko da eta beste hainbat tailer eta jarduera praktik o egingo dira, Pozalaguako kobazulorako bisitaldia adibidez. Programen garapena eta materialak doakoak dira, baina garraioa (autobusa), bazkaria

eta Pozalaguarako bisitaldia (tarifa murriztua, 2 €) ikastetxearen kontura dira. Hala ere, Pozalaguako bisita ez da derrigorrezkoa eta horren ordeztu paisaia interpretatzeko doako tailerra egin daiteke. Tailer horretan ikasleek lurreko teleskopioak eta prismatikoak maneiatuko dituzte.

### 2.2.2. Espazioak

Interpretazio Zentroak lau gune dauzka, inguruko paisiaz gain:

- Beginatokia: arrapala batek eraikinaren goiko aldera sartzeko aukera ematen du, goiko terraza batera, hain zuzen ere. Bertatik Karrantza Haranaren ikuspegi panoramiko eder bat ikus daiteke, eta atzeko aldean Ordunteko mendiak.
- 0 solairua: toki beretik abiatuta, pixkanaka-pixkanaka beherantz egiten duen arrapala batetik interpretazio zentroko sarrerara iritsi gaitzake. Harrerako solairura sartzeko ate bakarra dago. Solairu horretan natur guneen azalera, naturaren balioak, fauna, landaretza, gizakia eta lurraldea, baliabideen aprobetxamendua... ezagutu ditzakegu. Azpimarratzekoa da zohikaztegi bat ezagutzeko aukera ematen zaigula bertan. Zohikaztegian egindako sekzio baten bidez, 6.000 urteko osatze-prozesua ikus dezakegu.
- -1 solairua: barrura sartzeko bi aukera daude, barruko eskaileratik eta igogailuaren bidez. Honako hauek dira gune honen ardatz nagusiak: jatorri geologikoa, higadura edo erosioa eta bertako kobazuloak eta lurpeko sistemak ezagutzea, Torca del Carlista deritzon haitzuloa, esaterako.
- -2 solairua: igogailua hartu eta 40 metro inguru jaitsi ondoren, galeria artifizial batera iritsiko gara, kargatzeko toki zaharrarekin eta dolomita-mea garraiatzeko balde-lerroen irteerarekin lotzen gaituena, hain zuzen ere. Toki horretan hiru dimentsioko ikus-entzunezko bat dago jarrita. Bertan kobazuloa zeharka dezakegu saguzar baten gainean bidaiatuta eta hainbat azalpen jaso ditzakegu: materialak zelan sortu ziren, bertako ingurune-baldintzak ...

### 2.2.3. Programa didaktikoa

Armañon Parke Naturalaren Interpretazio Zentroak hainbat programa didaktiko ditu eskola bisitentzako, 7 hain zuzen ere. Adinaren arabera zehaztuta daude eta Haur Hezkuntzako etapatik Erdi- eta Goi-mailako zikloetara doaz. Bisitak eta programak euskaraz zein gaztelaniaz egin daitezke.

Hauek dira eskaintzen diren programen izenburuak:

1. Programa (H.H.): Niko untxiaren oinatzak jarraituz
2. Programa (L.H. 1. Zikloa): Egun bat Gurri saguzarrarekin
3. Programa (L.H. 2. Zikloa): Armañon Parke Naturalera hurbiltzea
4. Programa (L.H. 3. Zikloa): Behatoki handi bat
5. Programa (D.B.H. 1. Zikloa): Bide zaharretan barrena
6. Programa (D.B.H. 2. Zikloa): Belardiak, otalurrak eta kareharrizko paisaiak
7. Programa (Batxillergoa eta Heziketa Zikloak): Kareharrizko mendi-pusken artean

Programa didaktiko hauek Interpretazio zentroko langileek prestatutakoak dira. Gutxika- gutxika, lanean hasi zirenetik gaur arte, programa horiek sortzen, berrikusten, berritzen eta egiten ibili dira. Programa hauetan zenbait “koadernotxo” edo fitxa egoteaz gain, jolasak, antzerkia, tailerrak eta inguruko lekuetatik ibilbideak egiten dituzte. Azkenik, eskatzen duten eskolek Pozalaguara sartzeko aukera ere badute, bertan hainbat azalpen jasotzen dituztelarik. Kobazulorako sarrera da ordaindu behar den bakarra bisitaldi osoan zehar eta eskolentzat tarifa murriztua (2€) eskaintzen da.

Adina kontuan izanda, programa bakoitza moldatu egiten dute eta beti hobetzen saiatzen dira. Eguraldiari dagokionez, kokatuta dagoen zonaldeagatik eguraldia orokorrean ez da izaten oso ona, beraz, eguraldiak laguntzen ez duenean kanpoko ibilbideak bertan behera utzi behar izaten dituzte batez ere txiki-txikiekin. Eskola bisitak normalean egun osokoak izaten dira, 10:00etan hasten dira gutxi gora behera lanean, gero hamaiketarako ordu erdi dago eta bazkarirako beste ordu bat eguerdi aldera. Azkenik, tarte horiek kenduta programa aurrera ematen da eta orokorrean 15:30etan bisitari amaiera ematen zaio. Guzti hau eskola bakoitzak adostu eta moldatu dezake, bere beharren arabera.



Lan honen kasuan, 1. programa eramango da aurrera eta hori da behatuko dena. Programaren helburu orokorra animaliak, landareak eta naturako osagaiak ezagutzuz, habitat naturalen garrantzia balioestea da, harekiko ardurazko eta begirunezko jarrerak garatzeko.

Programan zehaztuta dauden jarduerak<sup>1</sup> hauek dira:

- Parketxea: zentroaren erakusketa-baliabideak oinarritzat hartuta eta hainbat jokoren bitartez, Parke Naturalean bizi diren animalia eta landare guztiak ezagutzeko aukera izango dugu.
- Pozalaguako kobazuloa: Armañongo lur azpiko mundu zoragarrian barrena sartuko gara.
- Ibilbide didaktikoa (400 m): Niko untxiak bere ingurunea erakutsiko digu, joko dibertigarrien bitartez.

Kasu honetan, hainbat faktore eta arrazoiengatik, parketxeko jarduerak dira behatuko direnak, izan ere, programa bakoitza eskolaren arabera eta beharren arabera moldatzen da.

### **3.Behaketa eta esku-hartzea**

Esku-hartzea gauzatu aurretik, martxoaren 8an, Armañongo Interpretazio Zentroa (AIZ) ezagutzeko bisita egin zen; bertako arduradun baten eskutik hezkuntza programak (bereziki HHkoa), instalazioak, ekintzak, espazioak ... ezagutu ziren, eta aldi berean monitoreek egiten dituzten egokitzapenak eta ematen dituzten informazioak jaso ziren ere. Ostean, behaketa zuzena egin ahal izateko eguneko data zehaztuta, egun horretako ekintzen planifikazioa burutu zen, aspektu gehienetan parte-hartzea aktiboa izanik.

AIZko zentroarekin lehenengo kontaktua oso ona izan zen. Oso harrera ona egin zidan bertako langileak eta oso inpresio ona atera nuen. Programei dagokienez, oso interesgarriak eta landuak iruditu zitzaizkidan, batez ere Lehen Hezkuntzatik aurrerako koadernotxoak. Haur Hezkuntzako programari dagokionez oso ondo iruditu zitzaidan

---

<sup>1</sup> Programaren planifikazioa zehatzago ikusteko: 1 eta 2. Eranskinak

koadernoaren ideia deuseztatzea eta beste planteamendu bat planteatzea langileen eskutik: antzerkia eta jolasak, ibilbidearekin batera.

Behaketa eguna zehaztuta eta nire interesa ikusita, behaketa egunerako nire laguntza izatea proposatu zidaten Zentroko kideek, hau da, beste begirale baten moduan aritzea. Horrela, hasieran behaketa soila izango zena, esku-hartze izatera pasatu zen.

Gauzak horrela nire inplikazioa handia izan zen eta laguntza eman nuen behaketa eguna baino lehenagoko jardura batzuetan (antzerkirako gidoiaren berrikusketa, proposamenak eta txotxongiloen prestaketa). Zentroko langileekin kontaktuan egon nintzen behaketa egunera arte eta nire laguntza eskertu zuten, izan ere, lan handia eskatzen zuen batez ere antzerkiaren prestakuntzak.

Martxoaren 26an, Karrantzako Kontxa Ikastetxe Publikoko Haur Hezkuntzako taldeak AIZra joateko eguna zuten. Guztira 40 ume inguru ziren eta 8 irakasle, horien artean ikastetxeko PT-a.

AIZri dagokionez, 5 langile egon ziren arduradun bezala, eta ni neu ere beraiekin batera. Goizeko 9:00etan elkartu ginen zentroan lehenengo ekintza (antzerkia) prestatzeko eta 10:00ak aldera, haurrak heldu ziren.

Tamalez, eguraldia kaxkarra izan zen. Hotz handia egin zuen eta euria eta haizea indartsuak ziren. Horregatik, eguneko bisitaldia interpretazio zentro barruan egin behar izan genuen eta inguruko bisitaldia eta ibilaldia ikusteko ez nuen aukerarik izan.

Haurrak interpretazio zentroan sartu bezain laster agurtu eta jakak zein motxilak uzteko tokia jakinarazi zen. Irakasleen eta gure laguntzarekin, taldez talde gauzak uzten eta 0 Solairuko erdiko gunean kokatzen joan ziren. Ikasle guztiak lekuan zeudela, bisitaldiko lehenengo jarduerari ekin genion.

**- Txotxongiloen bidezko antzerkia:**

Ekintza hau egun honetan aurkeztu zen lehenengo aldiz, beraz, estreinaldia izan zen. Horretarako, aurretik langileek lan handia egin zuten (gidoiaren prestaketa, antzetzokiaren muntaia, materialak prestatu, entseguak ...) eta nik ere nire aportazioak egin nituen: entseguetan gomendioak eskaini nituen eta antzerkirako apainketa lanetan parte hartu nuen, sagu-zaharraren txotxongiloa ere prestatu nuelarik<sup>2</sup>.

Euskarria aldeztu aurretik kokatuta zegoen, eta ikasleak sartzerakoan eta denok tokian zeudenean antzerkia hasi zen. Langile guztiek parte hartu zuten eta ni ekintza grabatzen egon nintzen, ekintzaren behaketa orokorra egiten nuen bitartean. Antzerkiak 30 minutuko iraupena izan zuen eta gidoiaren funtsa Armañongo Parke Naturaleko fauna eta flora ezagutarazteaz gain, naturarekiko errespetuzko jarrerak bultzatzea izan zen.



Lehenengo ekintza hau ikastalde guztiekin batera egin zen. Jarraian hamaiketarako denbora utzi zen (15-20 minutu) eta toki berean egin zuten, lurrean jesarrita, izan ere, kanpoaldera irteteko aukera ez zegoen eguraldiagatik eta zentroan jateko mahaiak ez daudelako.

Tarte horretan haur guztiei zentroko txartel bana jartzeko aukera izan genuen, bakoitzaren izena bertan idatzita zegoela. Irakasleei ere eskaini genien eta guztiok izan genuen geure txartela eskegita.

Hamaiketakoa bukatutakoan, ikastaldeak talde txikiagoetan banatu genituen, guztira 3 azpitalde sortu zirelarik. Begiraleek bisitaldiaren eta taldeen ordena adostu zuten berehala, eta hurrengo ekintzak izan ziren aurrera eramandakoak, espazio desberdinetan gauzatu zirenak eta errotazioaren legea jarraituta.

---

<sup>2</sup> 3.Eranskinean ikusteko aukera

**- Galeria artifiziala eta bideoa:**

Ekintza hau egingo zuen ikastaldea bera bitan zatitu zen, izan ere, -2 solairura jaisteko igogailua txikia da eta talde oso murrizetan sartzea beharrezkoa da. Beraz, bi bidaia egin ziren ikastalde guztia 40 metro jaitsi zen arte. Bertan galeria artifiziala ezagutu genuen eta mineral batzuen behaketa egin zen. Ibilbidea jarraituta galeria barrutik, ikus-entzunezko gune batean kokatu ziren ikasleak eta bertan zegoen pantaila batean "Gurri saguzaharra"-ren bideo digitalaren bidez, Pozalaguako kobazuloaren azalpena jaso zuten.



**- Imantatutako panela:**

-1 solairuan, haurrak korroan jesarrita jarri ziren koloretako kuxin batzuen gainean, bakoitzak berea zuelarik. Begiraleak bakoitzari animalia baten irudi duen imanezko txartela banatu zien. Jarraian, banan-banan ikasle bakoitza bere txartela begiratu, pentsatu eta gero, txandaka altxatzen ziren eta imanezko euskarri batean (Armañongo Parke Naturalaren antzeko irudiarekin) zegokion lekuan jarri behar zuen. Ekintza honen helburua inguruan bizi diren animalia bakoitzaren bizilekua identifikatzea zen.



**- Karetak:**

Ekintza hau solairu nagusian, hau da, 0 solairuan gauzatu zen. Ikasleei animalien kareta ereduak banatu zitzaizkien eta beharrezko materiala luzatu zitzaien ere (margoak, errotulkiak ...). Ikasleek eredu bana hartu eta margotu eta gero, goma jarri behar zuten, kasu gehienetan gure laguntzarekin. Azkenik, bakoitzak bere kareta zuelarik, talde bakoitzeko poltsa batean gorde ziren geroago erabiltzeko.



Ekintza hau bukatutakoan, solairu horretan bertan dagoen pantaila interaktiboa probatzen joan ziren ikasleak, langileen azalpenak jarraituta. Guztira 20 minutuko iraupeneko jarduera izan zen, aurreko ekintzak bezala, horrela talde guztiak txandaka ekintza guztietatik pasatu ziren.



Ondoren, denok solairu nagusian batu ziren bertan hurrengo eta azkeneko ekintza egiteko:

**- Jolasak:**

Aurretik margotutako kareta banatuta, ikasle bakoitzak bere kareta jarri zuen. Bi jolas burutu ziren:

- 1. Musika gelditzen zenean kareta berdina zuten ikasleek multzo bat osatu behar zuten. Hainbat aldiz errepikatu zen.

- 2. Ikasleak multzoetan elkartu behar ziren karetan zuten animaliaren arabera eta multzo bakoitzean zegokion animaliaren soinua eta ereduak egin behar zuten (txoriek hegan, sugeak arrastaka joan...). Multzo guztiek batera egin zuten, soinua eta eredu guztiak nahastu zirelarik. Hau ere hainbat aldiz egin zen.



Ekintza honen ostean, jateko denbora utzi zen. Berriro ere hamaiketakoak egin zuten lekuan jan egin behar izan zuten eta irakasleen ardurapean egon ziren. Begiraleak, bitartean, bisitaldiari buruz hizketan ibili ginen, aspektu positiboak komentatzen eta hobetzeko proposamenak aipatzen.

#### 4.Emaitzak

Egindako bisita gidatuaren behaketan oinarrituz eta aurretik lan honetako metodologian zehaztutako behaketa irizpideak kontuan izanik, jasotako emaitzak azalduko dira hemen.

Jarduerei dagokienez, programa didaktikoan zehaztutako hainbat ekintza egin ziren egun horretan, beraz programarekin bat datozela eta programa bete egin zela esan dezakegu. Guztira 5 jarduera burutu ziren eta bai denbora aldetik bai erabilitako materialen aldetik adin horretako haurrentzat egokiak izan zirela esan dezakegu. Hala ere, bideo digitalarekin egiten den jarduera ez dago hauren beharretara eta testuingurura moldatuta, nire ustez. Ekintza hau galeria artifizialaren bisita barruan dago eta galeria zeharkatuta, bideo digitala ikusteko espazio ederra dago. Haurrak bankuetan eserita egon ziren eta pelikulak 10 minutuko iraupena izan zuen. Hasieran erakargarria ematen zuen, “Gurri saguzaharra” maskotaren bidez egiten zelako kobazuloaren barruko aurkezpena. Baina azalpenak hasi zirenean, saguzaharraren eskutik izanda ere, oso luzeak eta haurrentzat ulertzeko zailak zirela ikusi nuen. Esaldi landuak, luzeak eta hiztegi espezifikoak erabiltzen zen eta oso azkar hitz egiten zuen. Irudiak ere oso azkar joaten ziren, bidaia interaktiboa izango balitz eta haurrak soilik irudi horietan arreta jartzen zuten, azalpenak ulertzeko aukerarik ez zutelako.

Jarduera horiek gauzatzeko oso garrantzitsua da erabiltzen den espazioa. Instalazioei eta espazioei dagokienez, zentroa nahiko berria den arren, langileen iritziaren bat etorritz, uste dut interpretazio zentro hau ez dagoela batere hauren beharretara egokituta. Zentro hau pertsona nagusiei bideratuta dago, baliabideei erreparatuz. 0 solairuko pantaila informatibo guztiak ez dira haurrentzat esanguratsuak, soilik erakargarriak izan daitezke baina ikaskuntzarik gabekoak.

Horrez gain, zerbitzu arruntak faltan botatzen dira (komunak, jangelak, mahaiak, aulkiak...) eta horiez gain, aurrera eramaten diren hainbat jarduera gauzatzeko baliabideak eta espazioak (tailer gela eta horretarako beharrezko materialak) ere. Jarduerak zentroko solairu eta espazio ezberdinetan egiten dira baina Haur Hezkuntzarako planteatzen diren ekintzak egiteko espazio horiek ez dira batere egokiak (zoruan egiten dira zenbait gauza eta pasabideak erabiltzen dira beste jarduera

batzuk egiteko). Gainera, behatutako kasuan, eguraldiaren ondorioz, zentroko kanpoko espazioak erabil ezinak geratzen dira. Kontuan izanda interpretazio zentroaren kokapen geografikoa, ingurunean ere ekintzak aurrera eramateko espazio itxiak edo estaliak falta dira.

Haurren jarrera behatuta, orokorrean ekintzetan gustura parte hartu zutela eta adi egon zirela esan dezakegu. Begiraleek ematen zituzten argibideei kasu egiten zieten eta begiraleek galderak luzatzen zituztenean erantzuten zuten. Hala ere, haien aldetik ez zuten galderarik egiten, entzuten egoten ziren batez ere. Ekintza batzuetan, haien parte hartzea handia zen (karetak, jolasak eta imanen jolasa) eta gustura ikusten zitzairen. Hala ere, beste ekintza batzuetan (bideoa) planteamenduagatik eta baliabideak egokituta ez egoteagatik haurren arreta ez zen bereganatu eta helburuak ez zirela lortu uste dut. Haurrak bankuetan eserita zeuden eta bideoari begira zeuden, baina beste pelikula bat izango balitz bezala hartzen zuten, nabaria zen ez zutela esandakoa ondo ulertzen. Ondorioz, ez zuten galderarik egin. Bestalde, lehenengo ekintza dela eta (antzerkia), esan beharra dago haientzat oso erakargarria izan zen arren, ikasle batzuk ez zirela isilik egon eta horrek gidoiaren ulermena baldintzatu zuen, izan ere, langileen bolumena ez zen oso altua eta isiltasuna behar zen ondo entzuteko. Jarrera horren aurrean irakasleak pasibo sumatu nituen, ikasleek entzumena oztopatzen zuten arren, ez zieten isiltzeko agindu askorik eman eta nire ustez disziplina irakaslearen ardura izan behar da, nahiz eta ikasleak txikiak izan arau batzuk bete behar dituztelako.

Behatutako azken irizpidea begiraleen jarrera eta komunikazio mota izan zen. Begiraleen jarrerari dagokionez, esan beharra dago haien zereginean oso gustura daudela eta interesa jartzen dutela. Jarrera oso positiboa da eta haurrenganako begirunea agerian da denbora osoan zehar. Ahaleginak egiten dituzte haurrengana heltzeko eta bisitaldia haurrentzat emankorra eta dibertigarria izateko. Oso inplikaturik daude eskola-irteeren programetan eta beti ekintzak moldatzen, aldatzen edo ugaritzen saiatzen dira. Haur Hezkuntzaren kasuan, zehazki, esan daiteke saiatzen diren arren ez dela haien eremurik landuena, baina gogoak jartzen dituzte eta horren ondorioz azken emaitza ez da txarra izaten. Komunikazioari erreparatuz, esan bezala saiatu egiten dira kontzeptuak haurrentzat moldatzen baina oraindik azalpen horiek

hobetzea dute helburu. Orokorrean era simple eta argian aritzen dira eta hurrekin interakzioa sortzen dute, haien parte hartzea bultzatzen duten bitartean. Hala ere, batzuetan azalpenak gehiegizkoak izaten dira haurren ulermen mailarako. Momentu askotan galderak luzatzen zituzten eta haurren erantzuna itxaroten zuten baina ikasleek gehienetan ez zuten erantzuten ezta galderarik egiten. Batzuk agian txikiegiak ziren azalpenak ulertzeko eta begiraleek adibideak jartzen zituzten arren, erantzun gutxi egon ziren. Langileek ahal duten guztia jartzen duten haien aldetik programa erakargarria izateko eta hurrei heltzeko baina izan daiteke ikasle batzuk oso txikiak izatea zentroan azaldu beharreko aspektuak ulertzeko eta horrek haien parte hartzea baldintzatzen eta mugatzen du.

AIZeko langileekin zentroari buruz hausnarketa egitean, denok bat datoz Haur Hezkuntzari dagokion programa beste etapakoekin konparatuta landugabeena dela, batez ere instalazio eta baliabide murrizak eta desegokiak dituztelako. Faktore horiek haien lana asko baldintzatzen dute haien inplikazioa handia den arren. Bestalde, inguru honetan oso garrantzitsua ikusten dute zentrotik kanpo programak gauzatzea eta horretarako kanpoan espazio estalia egotea onuragarria izango litzatekeela uste dute. Hala ere, dituzten mugen gainetik oso lan ona egiten dutela esan beharra daukat eta bai hurrekin bai irakasleekin edota bisitariekin jarrera ezin hobea eta oso gertua dutela.

## **5.Ondorioak**

Marko teorikoan ikusitakoa oinarritzat harturik, behaketa eta esku hartzea egin ostean ateratako ondorioak azalduko dira hurrengo lerroetan.

Haur Hezkuntzako curriculumean adierazten dena kontuan hartuta, inguruneak garrantzia handia du haurraren garapenean. Horregatik irakaskuntza-ikaskuntza prozesurako esku-hartzeak proposatu behar dira. Lan honetan ikusi dugu esku-hartze horiek eskoletan proposatzen direla eta aurrera eramaten direla.

Irteerak esperientzia hezitzailea dira eta eskolaren parte izan behar dute, hau da, eskolako bizitzan integratuta egon behar dira. Horretarako oso garrantzitsua da programazioak egin baino lehen haurren interesetatik abiatzea. Gainera, proposatutako ekintzak etapako helburuekin erlazionatuta egon behar dute. Kasu



honetan programan agertzen diren helburuak Haur Hezkuntzako curriculumean agertzen direnekin bat etortzen dira (landaredia eta animaliak ezagutu, errespetuzko jarrerak izan, arauak barneratu, bizilekuak ezagutu...), beraz, esan daiteke AIZ-eko HHko programa etaparako egokia dela.

Prozesu honetan irakaslearen papera funtsezkoa da: lan handia egin behar du eta errekurtsio guztiak eskaini behar dizkio haurrari. Irteerak proposatzerakoan programaketa izan behar du kontuan eta aurretiko, bitarteko eta ondorengo lan handia eskatzen du. Lan honetan ikusitakoren arabera, nabaria zen gelan aurretik zenbait kontzeptu landuta zituztela. Izan ere, momentu batzuetan begiraleek ekintzak azaltzerakoan edota egiten zituzten bitartean irakasleek haurrei esaten zieten: gogoratzen duzu zelan ikusi genuen...? "ikusi genuena" eta horrela adierazpenak zeuden. Hortaz, esan dezakegu gelan zenbait gauza ikusi zituztela gaintetik bada ere, irteerari buruzko ideia bat izateko asmoz.

Nire proposamena litzateke, adibidez, garraioaren ibilbidea lantzea, inguru horretan dauden animaliak eta landareak ezagutzen joatea eta gizarteratzeko jarrerak garatzeko ekintzak lantzea (eraman beharrekoa, arropa mota, tokiaren ezaugarriak, eguraldia...). Ekintza hauen bitartez curriculumean dauden hainbat gaitasun batera lantzen dira eta oso positiboa eta onuragarria iruditzen zait egunerokotasuneko aspektuen bidez ikaskuntza bideratzea. Haurrak garraioarekin daude kontaktuan, animaliekin, landareekin eta arauak ezagutzen dituzte. Baina horiek modu esplizituan lantzen diren arren, uste dut oso interesgarria litzatekeela aipatutako ekintzak bideratzea gaitasun horiek benetan praktikan jartzeko eta haiek horren parte izateko.

Azkenik, ondorengo ekintzei dagokienez, AIZ-eko programak irakasleen eskura jartzen ditu zenbait jardura<sup>3</sup> gelan egiteko. Hala ere, nire ustez, ekintza horiek oso sinpleak eta isolatuak dira. Irakasle bezala, irteera bat egin eta gero ikasitako guztiaren murla osatzea proposatuko nuke, izan ere, modu honetan haurren parte hartzea handiagoa da eta gizarteratzeko jarrerak ere barneratzen doaz (informazioa bilatu, inprimatu, fotokopiak egin...) modu motibagarrian, ikusgarrian eta esanguratsuan ikasten dutelarik.

---

<sup>3</sup> 4.Eranskinean ikusgai.

Marko teorikoan aipatzen den aspektu garrantzitsu bat irteeren bidezko sozializazio prozesuaren eraikuntza da, ingurune hurbileko elementu sozialekin kontaktuan dagoelako haurra. Guztiz ados ideia honekin, irteeren bidez haurrak elkarrekin erlazionatzen dira, besteekin interakzioan jarduten dute eta hain parekoak ez direnekin ere harremanatzen ikasten dute. Gainera, jarrera positiboak sortzen dira (errespetua, arauak...). Txikiak garenetik bai jarrerak eta bai sozializazioa landu beharra dauzkagu, gure izanaren funtsezko aspektuak ditugu. Horregatik esan dezakegu irteera hau oso baliotsua izan dela haurrentzat, balio horiek indartu dituztelako, beste batzuen artean.

Ondorioz, jasotako emaitzak ikusita esan dezakegu AIZ-ko Haur Hezkuntza programa etapako helburuekin bat datorrela eta interesgarria dela egiten duten bisitaldia. Bestalde, kontuan izanda behaketa egunean egondako haurrak bertokoak zirela (Karrantza), are interesgarriagoa iruditzen zait izandako esperientzia, beraien inguruko naturako elementuak zuzenean ikusi dituztelako eta modu erakargarrian ezagutzeko aukera izan dutelako.

Lan honen bidez irteerak haurren garapenean duten garrantziaz jabetzeko aukera izan dut, bai eta zentro bateko hezkuntza eskaintza aztertzeke ere. Irakasle izango garen heinean funtsezkoa ikusten dut haurraren ikaskuntza prozesuan onuragarriak eta esanguratsuak diren baliabideak aztertzea eta horiei buruz hausnartzea, denon artean hezkuntza kalitatea hobetzeko asmoz.

## **6. Eskerrak**

Lan hau bukatu baino lehen Armañongo zentroko langileen inplikazioa eta harrerari berezko aipamena eskaini nahi diet. Zentroak hainbat gabezia dituen arren, langileak etapa honetarako zein besteetarako programetan guztiz inplikaturik daude eta egunegun hobetzen saiatzen dira. Eskerrak eman nahi dizkiet lan hau bertan egiteko aukera eskaintzeagatik eta emandako tratuagatik.

Bestalde, Bilboko Irakasleen Unibertsitate Eskolari eta bidez batez, lan hau bideratzen lagundu didan nire tutoreari eskerrak ere luzatu nahi dizkiot, jasotako laguntzagatik eta lan honetan sinesteagatik.

## 7. Erreferentzia bibliografikoak eta webgrafia

- ARREGI, A., SAINZ, A., TAMBO, I. eta UGARRIZA, J. (2004) *Ejemplos de ítems de conocimiento científico. Programa PISA*. 2015ko Otsailaren 2an berreskuratua <http://www.mecd.gob.es/dctm/ievaluacion/internacional/itemscienciaspisa.pdf?documentId=0901e72b80110699-etik>
- BENEJAM, P. (2003) “Los objetivos de las salidas”. *Íber: Didáctica de las ciencias sociales, geografía e historia*, 36, 7-12 orr.
- CAÑAS, A. eta MARTÍN-DÍAZ, M<sup>a</sup> J. (2010) “¿Puede la competencia científica acercar la ciencia a los intereses del alumnado?” *Alambique* 66, 80-87 orr.
- CUENCA, J.M. (2000) *Concepciones del alumnado en Educación Infantil para la comprensión del medio sociocultural*.
- ESTORCH MARTIN, P., GÓMEZ BELTRÁN, M<sup>a</sup> D., GONZÁLEZ PÉREZ, E., QUESADA GARCÍA, M<sup>a</sup> D., eta QUIJASNO MEZQUITA, R. (1993) *Salimos y aprendemos*. Junta de Andalucía. Conserjería de Educación y Ciencia.
- EUSKO JAURLARITZA (2009) *EAE n Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum a sortu eta ezartzen duena*. 12/2009 DEKRETUA.
- GARCÍA CARRANCO, E. (2008) “El valor de las salidas escolares”. *Papeles de educación*, 2. 80 orr.
- INSTITUTO DE EVALUACIÓN (2007). *PISA 2006. Programa para la Evaluación Internacional de los Alumnos. OCDE Informe español*. Madrid: Ministerio de Educación. 2015eko Otsailaren 24an berreskuratua <http://www.mec.es/multimedia/00005713.pdf-tik>.
- INSTITUTO DE EVALUACIÓN (2010). *PISA 2009. Programa para la Evaluación Internacional de los Alumnos. OCDE Informe español*. Madrid: Ministerio de Educación. 2015eko Otsailaren 24an berreskuratua <http://www.mecd.gob.es/dctm/ievaluacion/internacional/pisa-2009-con-escudo.pdf?documentId=0901e72b808ee4fd-tik>
- INSTITUTO DE EVALUACIÓN (2013). *PISA 2012. Programa para la Evaluación Internacional de los Alumnos. OCDE Informe español*. Madrid: Ministerio de Educación. 2015eko Otsailaren 24an berreskuratua <http://www.mecd.gob.es/dctm/inee/internacional/pisa2012/actualizacion.13.3.2014/pisa2012-informe-espanol.pdf?documentId=0901e72b818cf241-etik>
- JIMENEZ, M<sup>a</sup>. P. eta PUIG, B. (2013). “El papel de la argumentación en la clase de ciencia”. *Alambique*, 75 Zbk., 85-90. Orr.
- OCDE El programa PISA de la OCDE. Qué es y para qué sirve. *Santillana*. 2015eko Martxoaren 6an berreskuratua

<http://www.oecd.org/centrodemexico/medios/41479051.pdf-tik>.

SOLBES, J. eta TRAVER, M. (2001). "Resultados obtenidos introduciendo la historia de la ciencia en las clases de física y química: mejora de la imagen de la ciencia y desarrollo de actitudes positivas". *Enseñanza de las Ciencias*. 19 (1) Zbk., 151-162. Orr.

SOLBES, J., MONTSERRAT, R. eta FURIÓ, C. (2007). "El desinterés del alumnado hacia el aprendizaje de la ciencia: implicaciones en su enseñanza". *Didáctica de las Ciencias Experimentales y Sociales*. 21 Zbk., 91-117. Orr. 2015eko Martxoaren 18an berreskuratua

[http://www.juntadeandalucia.es/averroes/averroes/html/portal/com/bin/contenidos/B/ApoyoAlCurriculo/CurriculoDeAndalucia/Seccion/EducacionInfantil/DocumentosejemplificadoresEducacionInfantil/1179900582857\\_wysiwyg\\_libin11.pdf-tik](http://www.juntadeandalucia.es/averroes/averroes/html/portal/com/bin/contenidos/B/ApoyoAlCurriculo/CurriculoDeAndalucia/Seccion/EducacionInfantil/DocumentosejemplificadoresEducacionInfantil/1179900582857_wysiwyg_libin11.pdf-tik).

<http://turismoa.euskadi.eus/eu/naturguneak/armanongo-parke-naturala/aa30-12375/eu/-etik> berreskuratua 2015eko Apirilaren 2an.

[http://www.bizkaia.net/home2/archivos/DPTO9/Temas/Pdf/Patrimonio\\_Natural/ACTIVIDADES/PROGRAMA%20ARMANON%20def.pdf?idioma=EU-etik](http://www.bizkaia.net/home2/archivos/DPTO9/Temas/Pdf/Patrimonio_Natural/ACTIVIDADES/PROGRAMA%20ARMANON%20def.pdf?idioma=EU-etik) berreskuratua 2015eko Martxoaren 28an.

[http://www.bizkaia.net/home2/Bizkaimedia/Contenido\\_Noticia.asp?Not\\_Codigo=10996&idioma=EU&dpto\\_biz=9&codpath\\_biz=9-etik](http://www.bizkaia.net/home2/Bizkaimedia/Contenido_Noticia.asp?Not_Codigo=10996&idioma=EU&dpto_biz=9&codpath_biz=9-etik) berreskuratua 2015eko Martxoaren 29an.

[http://www.bizkaia.net/home2/Bizkaimedia/Contenido\\_Noticia.asp?Not\\_Codigo=10996&idioma=EU&dpto\\_biz=9&codpath\\_biz=9&bnetmobile=0-etik](http://www.bizkaia.net/home2/Bizkaimedia/Contenido_Noticia.asp?Not_Codigo=10996&idioma=EU&dpto_biz=9&codpath_biz=9&bnetmobile=0-etik) berreskuratua 2015eko Martxoaren 29an

[http://www.ehu.es/ikastorratza/7\\_alea/Ota%F1o-Montejo%20Berritzegune/LHko%20ICP%20INGURUNEAREN%20EZAGUERA/sarrera.pdf-etik](http://www.ehu.es/ikastorratza/7_alea/Ota%F1o-Montejo%20Berritzegune/LHko%20ICP%20INGURUNEAREN%20EZAGUERA/sarrera.pdf-etik) berreskuratua 2015eko Martxoaren 7an.

[http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10\\_curriculum\\_berria/eu\\_5495/adjuntos/orientaciones\\_mat\\_ayuda/G00E.pdf-etik](http://www.hezkuntza.ejgv.euskadi.eus/r43-2459/eu/contenidos/informacion/dif10_curriculum_berria/eu_5495/adjuntos/orientaciones_mat_ayuda/G00E.pdf-etik) berreskuratua 2015eko Otsailaren 15ean.

<http://www.karrantza.org/eu-ES/Turistak/ArmanongoParkeNaturala/Orrialdeak/default.aspx-etik> berreskuratua 2015eko Apirilaren 8an.

[http://www.unesco.org/education/pdf/DELORS\\_S.PDF-etik](http://www.unesco.org/education/pdf/DELORS_S.PDF-etik) berreskuratua 2015eko Otsailaren 20an.

**ERANSKINAK**

I.

**6 BIITA EGUNEAN**

Armañon bisitan zehar jarraituko den ordutegia hurrengoa da:

Orduetgia	1 Taldea	2 Taldea	3 Taldea
10.00-10.30	Aurkezpena eta hamaiketakoa		
10.30 - 13:00	Kanpo begiratokia eta atsedenekua	Erakusketa (-2 Solairua)	Erakusketa (0 Solairua)
	Erakusketa (0 Solairua)	Kanpo begiratokia eta atsedenekua	Erakusketa (-2 Solairua)
	Erakusketa (-2 Solairua)	Erakusketa (0 Solairua)	Kanpo begiratokia eta atsedenekua
13:00 - 14:30	Bazkaria		
14:30 - 15:30	Pozalagua		

Orduetgia hau gutxi gorabeherakoa da, arazoren bat izanez gero eskola ordutegira doitu daiteke.



Hurrengo taulan aktibitate bakoitzean jardungo diren edukiak azaltzen dira:

Jarduera		Edukiak
Atsedenekua	Mozorro tailerra	Parke Naturaleko animalien maskarak sortuko ditugu.
Kanpo begiratokia	Jarrera fitxa	Jarrera positibo eta negatiboen sailkapena.
Erakusketa (0 Solairua)	Animaliak eta bizilekuak	Parke Naturalean bizi diren animalien ezagupena eta zein da bakoitzaren bizilekua.
Erakusketa (-2 Solairua)	Saguzarrak	Lurpeko miaketa
Pozalagua	Egiturak	Egituren aurkikuntza

II.

## 7 EDUKIAK

### Kontzeptualak

1. Parke Naturala eta inguruaren hurbileko paisaia osatzen duten elementuak (basoak, mendiak, belardiak...)
2. Animalia eta landareen morfologia. Izaki bizidunen eta habitat naturalaren arteko erlazioa.

### Prozedurazkoak

1. Inguru naturaleko elementuekiko sentitzen diren sentazio eta emozioak antzematea.
2. Paisaia eta inguruko landare eta animalien ezaugarrien behaketa espontaneoak.

### Jarrerazkoak

1. Animalia, landare eta ingurunearekiko sentiberatasuna, interesa, jakinmina, errespetua eta ardura.
2. Natur inguruneak giza bizitzarentzat duen garrantziaren balorazioa.
3. Natur aniztasuna eta aberastasunaren balorazioa eta aldeko jarrera positiboak bultzatzea.

## 8 BISITAREN EBALUAKETA

Armañon Parke Naturalean barrena irteera egitea abagune ezinhobea da ikasleek klasean ikasten dutena inguruan bertan aplikatzeko.

Beraz, ikasleek duen aurretiazko ezagupenak kontuan hartu behar dira, bisitaren ebaluazio zehatzagoa egitearren.

Horretarako koadernotxo bat bete beharko dute. Koadernotxo horretan ekintza ezberdinak burutuko dituzte, zeinen bitartez zuen ikasleek egin duten lana balioztatuko dituzuela.

Eguna bukatzeko oso interesgarria gauzatzen zaigu zuen iritziak eta iradokizunak ezagutzea, hurrengo bisitak hobetzeko asmoz. Inkesta batzuen bitartez egunean zehar bete dugun unitate didaktikoa balioztatu ahal duzue.



III.



IV.

2. Non bizi da animalia bakoitza? Lotu itzazu animaliak dagokien bizilekuarekin.

